

## Eibar Mugimenduan (2022-1)

7-21 urte bitarteko aniztasun funtzionala duten haur eta gazteentzat antolatutako tailerra da. Tailerra larunbat arratsaldean burutuko da.

**Tramitatzailerak:** Eibarko Udaleko Kultura saila, Haurreria eta Gazteria.

**Hartzaileak:** 2014 urtean jaiotakoetatik 21 urte arte.

**Taldeak, datak, ordutegiak, tokia, formatzaileak:**

**“Mugimendua”.** Otsailak 5. Portalean. Gutxienez 4 haur/gazte, gehienez 15. Enpresa: Bash

- Ordutegia: 17:00-19:00.

**Ikastaroaren prezioa:**

- Eibarren errolatutakoak 2 €.
- Eibarren errolatuta ez daudenak 4€.

**Ikastaroaren ordainketa:**

Ikasleei matrikularen zenbatekoa ordainketa bakar batean kobratuko zaie, erreziboa helbideratuta.

**Tailerren hizkuntza:** euskaraz.

**Aurrematrikula:** ikastaroan izena emateko aurrematrikula egin beharko da **urtarrilaren 21etik 31ra (biak barne)**. Aurrematrikula egiteko **formulario bat bete beharko da elektronikoki ondorengo estekan:**

<https://formularioak.eibar.eus/eu/eibarmugimenduan2022-01>

**Kudeaketa arauak:**

Aurrematrikula egiteko epea amaitzerakoan behin-behineko zerrenda lortuko da eta taldearen kudeaketa burutuko da.

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), **2022ko otsailaren 2an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da**. Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **otsailaren 2an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik tailerrean izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda egiten da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku baten sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat ateratzen da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita elkarren hurreneko ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean ([www.eibar.eus](http://www.eibar.eus)), egongo da **otsailaren 2an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori

argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Aurre-inskripzioen onarpenaren ondoren, behin betiko inskripzioa egin behar da, ondoren adierazten den dokumentazioa tailerra burutuko den lehen egunean aurkeztuz:

- “Eibar Mugimenduan” izeneko inprimakia behar bezala beteta eta tailerrera joango den adingabearen aita, amak edo tutoreak sinatuta.
- Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

**Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan.**